



# ARANBURU BITXITEGIA

## 60 urte bitxigintzan



Uzuri  optika audio

Ikus zaitzatela beste modu batean  
Gabonetan; oparitu betaurrekoak!

**%15eko deskontua**  
eguzkitako betaurrekoetan.



## *Fernando Moreno Chaves*

2022ko abenduaren 3an hil zen, 75 urte zituela.

***Betirako gogoan izango zaitugu.***

ZUBI - ONDO



## *Carmen Trucios Barranco*

2022ko abenduaren 11n hil zen, 97 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



## *M<sup>a</sup> Lourdes Arrizabalaga Urbieta*

2022ko abenduaren 12an hil zen, 87 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



X.URTEURRENA

## *Kerman Moreno Iriondo*

2012ko abenduaren 20an hil zen, 43 urte zituela.

***Mendietarantz pausoa luzea  
bizitzak krudel haizea  
nola gainditu, nola arindu  
zu hemen ez izatea.  
Zure goxoa, zure barrea  
gertu beti umorea  
ez hiltzen zenbat saiatzen garen  
bizitzen gutxi, ordea,  
gugan landatu dituzunekin  
segiko dugu bidea.***

Etxekoak




Argitaratzailea:



Alex Segade

Kazetaria

## Gabon zoriontsuak, eta luzeak



*“Lehenengo  
bonboia jaten dudanean  
hasten dira Gabonak”*

Babeslea: Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.  
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - 📞 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - 📞 688 769 657

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



[facebook.com/barrenaldizkaria](https://facebook.com/barrenaldizkaria)



[twitter.com/barreneus](https://twitter.com/barreneus)



[instagram.com/barrenaldizkaria](https://instagram.com/barrenaldizkaria)

Ez al du inork Gabonak urtetik urtera lehenago hasten diren sentrazioa? Kaleko argiak abendu hasieran pizten dituzte Udalek, etxeetan ere geroz eta lehenago ikusten dira Gabonetako argiak... Normalean, Konstituzioko zubia eta gero jartzen ziren, baina aurten, jai-zubia baino lehenago ikusi ditut balkoietan eta leihoetan. Nire etxea ez da adibiderik onena. Abenduaren 1ean zuhaitza eta guzti zegoen jarrita. Agian nire irudipena izango da, baina hala dela sinetsita nago: urtetik urtera Gabonak luzeagoak direla. Telebistako Gabonetako iragarkiekin gauza bera gertatzen da: abendua hasterako hortxe dituzu, *pamm*. Mariah Careyren *All I want for Christmas is you* abesti entzunena da munduan, Spotifyen, ia-ia abendua hasi zenetik. Sekulako mania hartu diot abesti horri. Ez naiz bakarra, seguru.

Agian kontsumoaren kultura horren eraginez izango da. Black Friday eguneko kanpainia bukatu bezain laster Gabonetakoa hasten da martxan. Ezin dugu ezta arnasarik hartu. Hobeto esanda, askorentzat bankuko kontu korrontea izaten da arnasarik hartu ezinda ibiltzen dena. Urte gutxi barru Black Friday hori Gabonekin nahastuko da, eta garai berean izango dira biak. Merkealdia han, merkealdia hemen... Gaur egun ez dago garai jakin bat merkealdirako; urte osoan zehar daude deskontuak. Urtarrileko merkealdia datorrenean ez daukazu ezer erosteko, behar zenuen edo nahi zenuen guztia badaukazulako ordurako.

Berez, noiz hasten dira Gabonak? Abenduaren 24ko gauean, ezta? Lehen bai behintzat; orain, ordea, abenduan sartzeaz batera hasten direla esango nuke. Argien kontuarekin dibertigarriena zera da: ikustea estatu mailako hiri handienek lehiaketa moduko bat egiten dutela, argi politen lehiaketa edo. Gero, irteten gara kalera eta hainbeste argirekin ez dugu jakitzen eguerdia edo gauerdia den. Ez dakit zuentzat noiz hasten diren Gabonak, baina niretzat lehenengo bonboia jaten dudanean hasten dira. Berdin zait zer egun den.



BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

-----

### Oharra

Datorren astean urteko azken BARRENA kaleratuko dugu, abenduaren 30ean ez baita egongo. Beraz, zerbait argitaratu nahi izanez gero, abenduaren 21a duzue azken eguna.

### BARREN

#### 2022ko jubilatuen biltokiaren astea

Eskerrak eman nahi diogu, dena hain ondo irteten lagundu digun lagun-taldeari. Aurten ere, eskertzekoa izan da Andra Boluntarioen Taldearen lan bikaina eta astuna, urrian izan genuen 80+ bazkari jendetsuan eta azaroko txokolatadan. Aitortzekoa da, Andra Boluntarioen Taldeak 40 urte segidan daramatzala laguntza hori eskaintzen lagunarteko egun berezietan. Doala eurenganako gure esker on eta omena, eta beste urte askoan jarraitzeko kemena izan dezatela, elkartze kideen eredu solidarioa dira-eta.

Eskerrak, euren goi mailako hausnarketekin kultura irakatsi diguten Loredi Salegi eta Josetxu Riviereri; eta baita Pello Arrieta historialariari eta Javier Vargas MUFOMI Museoko zuzendariari.

Eskertzen ditugu baita ere Udalaren babesa, Kultura eta Euskara Sailekoena, zabalkundean lagundu digun prentsarena: Aitor Zabala (*Diario*

*Vasco*), Jabi Leon (*Noticias de Gipuzkoa*) eta BARREneko lagunak, Parrokia, Brigadako langileak, Gurutze Gorria, tabernako Pedro eta Manoli, Batzordeko gizon eta emakumeak, eta aparteko pertsona borondatestuen laguntza.

Denen ahalegina batuta, Jabilatuen Omenezko Astea egin ahal izan dugu.

#### Elgoibarko Jubilatuen Biltokiko zuzendaritza

#### Gabonetako egitaraua

SARE-k Gabon jai hauetan gure herrikidea den Josu Lariz ekarri nahi du gogora, eta eskatu Euskal Herrira eta Elgoibarrera bueltatzeko duen eskubidea aitortu diezaiotela bebingoz, beste hamarnaka exiliatuei aitortu zaien moduan. Honekin batera euskal presoei egiten ari diren espetxe ibilbidea onartu eta hirugarren gradua aitortzea eskatzen dugu. Horiek horrela:

- Abenduaren 24an Kalegoen plazan elkartuko gara, 19:00etan, bertso eta kantu batzuk abesteko.

- Abenduaren 30ean elkarretaratzea egingo dugu Maalako parkean, 20:00etan.

- Urtarrilaren 7an Bilboko manifestazioan parte hartzeko gonbitea luzatu nahi diegu elgoibartarrei. Autobusa 16:15ean irtengo da Txankakuako zubitik. Jai Alai, Iturri eta Lanbroa tabernetan eman daiteke izena.

SARE Elgoibar



I.URTEURRENA

### *Anjel Kortaberria Idigoras*

2021eko abenduaren 27an hil zen, 74 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, abenduaren 17an, 19:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi, alde zurretik eskerrak.



I.URTEURRENA

### *Juan Agustin Esnaola Egaña*

2021eko abenduaren 11n hil zen, 91 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.***

Etxekoak

## Zazpi saski ekologiko eta erosketa txeketan 1.800 euro banatuko ditu Txankakuak Gabonetan

**T**xankakua merkatarien elkarteak saltoki txikien garrantzia nabarmendu du Gabonetako kanpainan. Herriko dendariak ematen duten konfiantza eta hurbiltasuna azpimarratu dituzte, eta gogora ekarri dute merkataritza txikiak herriari bizia ematen diola. Horregatik, herritarrek herriko dendetan erostera animatu nahi dituzte elkartekoei, eta horretarako, zazpi saski ekologiko eta erosketa bonotan 1.800 euro banatuko dituzte abenduaren 22ra bitartean Txankakuaren dendetan erosketak egiten dituztenen artean. Kanpainari ikusgarritasuna emateko, Txankakuako denden atarian alfonbra gorria eta lorontzia jarri dituzte. Epe horretan Txankakuaren dendetan erosten dutenek txartel bana jasoko dute beraien izen-abizenak eta telefonoa zehazteko, eta horrekin hartuko dute parte otarren zozketan. Horrez gain, erosketa-bonoen zozketarako txartelak ere jasoko dituzte.



Hamar erosketa-bono zozkatuko dituzte, 500 euroko bi eta 100 euroko zortzi. Urtarrilaren 9an egingo dute bonoen zozketa, notario aurrean. Kanpainaren barruan, bestalde, urtarrilaren 3an txu-txu trenan ibiliko da herriko kaleetan, 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:30era. Txankakuako maskotak ere irtengo dira kalera, eta leialtasun opari txikiak banatuko dituzte. Gabonetako kanpaina hau Elgoibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak eta Rural Kutxak babestu dute.

### Bingo solidarioan batutako dirua banatu du Sanlok



Sanlobeer festaren barruan bingo solidarioa egin zuen Sanlok, eta guztira 942 euro batu zituen. Asteburu honetan banatu dute dirua, Elgoibarko Gurutze Gorria eta Dislegi Debarareneko Dislexia Elkartearen artean.

### Antzinako Elgoibar ezagutzeko kafe tertulia egingo dute Jubilatuen Biltokian, hilaren 20an



Jubilatuen Biltokiak kafe tertulia antolatu du martitzenerako, argazki zaharren bidez antzinako Elgoibar ezagutzeko. Egun horretan hain justu ere 676 urte beteko dira Elgoibarrek hiri gutuna eskuratu zuela Villa Mayor de Marquina izenarekin. Hiri gutun hori ardatz hartuta, Olasotik hasi eta Mendarora arteko errepasoa egingo dute Pello Arrieta historialariarekin, eta garai hartako toponimo zaharren jatorria ere ezagutuko dute. 17:00etan hasiko da saioa.

## Debarrena Suspertzeko Ponentziarako proposamenak aurkeztu ditu EH Bilduk

EH Bilduko eskualdeko ordezkariak Debarrena Suspertzeko Ponentziarako ardatz eta proiektu proposamenak aurkeztu dituzte. Gizarte-itun handi bat osatzea “premiatzkoa” ikusten dute eta horren inguruko proposamena landu dute, “ongizatearen oinarri materialak bermatzera bideratutako bost neurritan artikulatua” eta “aberastasunaren banaketa sakon baterako” beste bost neurriekin osatutakoa: Energia prezio justua, soldaten eta pentsioen igoera, etxebizitza eskubidea, zerbitzu publiko sendoak eta garraio publiko kolektiboaren doakotasuna. Orain aurkeztu dituztenak proposamen horren oinarri nagusiak direla zehaztu dute. Oro har, EH Bildu ados dago Debegesa eskualdeko garapen agentziak Ponentziara igorri zuen txostenean ekintzarako proposatzen zituen bederatzi lerro estrategikoekin: gobernantza eredu berri; berrindustrialtzea; kalitateko enplegua eta aukera berdintasuna sustatu; hirigintza zaharberri; turismo eskaintza hobetu; eredu energetikoa



aldatu; baliabide natural endogenoak aktibatu; auto pribatua gutxiago erabiltzeko alternatibak eskaini eta eskualdeko ingurumen kalitatea hobetu. Hala ere, hamargarren bat gehituko liokete; zaintzarena alegia. Informazio osotuagoa [barren.eus](http://barren.eus) atarian.

### 'Aulki hutsak' hitzaldia antolatu dute, Gabonetan dolua nola kudeatu lantzeko

Gabonetako ospakizunak iristear daude eta etxe askotan aulkiren bat hutsik egongo da. Gabonetan dolua nola kudeatu azaltzeko hitzaldia antolatu dute datorren eguenerako. Almaur elkarteko Iñaki Agirrek gidatuko du saioa eta Aitor Iriondo eta Nerea Gimenezoren

testigantzak bilduko dituzte. Saioa doan izango da, baina antolatzaileek eskatu dute aurrez emateko izena, telefono zenbaki honetara deituta: 627 117 819. Hitzaldia abenduaren 22an izango da, 18:30ean, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

### Aitziber Aranberri izango da EH Bilduren alkategaia



2023ko maiatzaren 28an izango dira Udal Hauteskundeak, eta EH Bilduk ere jakinarazi du nor izango den bere alkategaia: Aitziber Aranberri (Elgoibar, 1973). 2019an sartu zen zinegotzi, eta iazko urritik EH Bilduren udal taldeko arduraduna eta bozeramalea da. Goi Mailako Administrazio Teknikari ikasketak egin zituen Eibarko Unibertsitate Laboralean eta gaur egun Zientzia Politikoetako Gradua egiten ari da UNEDen. Bere lantokiko LAB sindikatuko langileen ordezkaria da, 2003tik; eta, 2018tik aurrera enpresak Gipuzkoan dituen lantokietako LABeko sail sindikaleko koordinatzailea ere bada.

## Idoia Gurrutxaga Donostialdeko ESIko zuzendari medikoa kargugabetu zutenetik ez da baretu egoera

Astebete pasatu da Donostialdeko ESI Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari kudeatzaile Itziar Perez eta Idoia Gurrutxaga zuzendari mediko elgoibartarra kargugabetu zituztenetik, baina urak nahasi datoz oraindik. Abenduaren 2an eman zien Gurrutxagak lankideei kargugabetzearen berri, baina ez zien zehaztu zergatia. "Zuek guztiontzako esker oneko eta elkartasuneko hitzak besterik ez ditut. Ohorea izan da ESI honetan zuzendari mediku moduan lan egitea", idatzi zien lankideei. Haserrea eragin zuten kargugabetzeek Donostialdeko ESI erakunde sanitarioan, eta zenbait dimisio ere ekarri zituzten ondorengo egunetan. Donostialdeko ESItik esan dute ezin dutela isilik egon "kudeaketa krisi larriaren" aurrean, eta salatu dute ospitaleko profesionalei eta adituei ez entzuteagatik herritarrek "zerbitzuen galera" pairatzen ari direla. "Pandemiak, profesional kualifikatuen



eskasiak" eta osasun zerbitzuen eskari geldiezinak areagotu egin dituzte Osakidetzaren "erabaki okerren ondorioak", zerbitziburuen arabera. Elkarrizketarako deia egin diote Osakidetzari, baina "hurbiltzeko borondaterik" ez dute ikusten. Iñigo Urkullu lehendakariak «lasaitasunera» dei egin du azkena, eta esan du Osasun Saila eta Osakidetzeta plan estrategiko bat lantzen ari direla.

### Kilimon erreko petrila handitzen hasita daude, uholde arriskua txikitzeko

Abenduaren 1ean hasi zituen Uraren Euskal Agentziak petrila altxatzeko lanak. Gaur egungo petrilaren txapitula kendu eta hamabi bat zentimetroan altxatuko dute, 71,51 metroko luzeeran, eta ondoren, kendutako zatia jarriko diote berriro. Obrak irauten duen denboran ezingo da gune horretan aparkatu. Hiru bat asteko lanak izango direla zehaztu dute Udaletik.

URAK behin baino gehiagotan esan izan du Deba ibaiak eragiten dituela arazorik handienak Mendaroko Garagartza auzoan urak hazita datozenean, baina han ez dagoela esku-hartzerik. Deba hazita datorrenean, Kilimon erreka ezin izaten ditu urak ibairatu eta errekan behetik gora hasten da pilatzen ura. Hori gertatzen denean, Kilimon errekan 2017an jarri zituzten klapetak itxi egiten dira erreka doan hoditeriatik ura kalera irtetea eragozteko, baina horrek beste arazo bat sortu ohi du auzoan, euri-ura kalean pilatzen hasten delako.

URA agentziak Mendaroko Udalaren aginduz egin duen azterketatik ondorioztatu



dute hoditeria-sistema aztertzeko beharra dagoela batetik, eta bestetik, petrila altxatuta txikituko litzatekeela Kilimoiak gainezka egiteko arriskua. Udalak enpresa bati agindu dio eurien sarearen funtzionamendua aztertzeko eta urtarrila erdialderako espero dituzte emaitzak. Enpresak aurrerratu du, hala ere, ekaitz-tanga bat eraikitzea izan daitekeela irtenbideetako bat. Hara bideratuko litzukete hoditeria-sisteman pilatzen diren urak, handik erreka ponpatzeko.



## Hiru lagun atxilotu dituzte, lapurreta egotzita

**E**rtzainek 27, 21 eta 19 urteko hiru gizon atxilotu zituen zapatuan, 10:00ak aldera, Mendaron, eta Elgoibarko eta Itziarko bi establezimendutan izandako lapurretekin harremandu zituzten. Errepideko ohiko kontrol batean gelditzeko eskatu zieten ertzainek gazteei, baina haiek ihesari eman zioten. Elgoibarko industrialde batean autoa laga eta hanka egin zuten mendi aldera. Orduan jabetu ziren ertzainak hiru gizon horiek industrialdean laga zuten autoa bezperan Usurbilen lapurtutakoa zela. Autoan, bi kutxa erregistratzaile eta ustez lapurtutakoak ziren beste hainbat gauza atzeman zituen Poliziak, eta haien bilaketa hasi zuten. Ordu gutxiren buruan, 10:00ak aldera, atxilotu



zituzten hiru gazteak Mendaron, 634 errepide inguruan. Arropak eta oinetakoak bustita eta lokatzez zikinduta zituzten eta Eibarko ertzain etxera eraman zituzten, lapurretak leporatuta. Lerro hauek idazteko unean, zabalik zegoen ikerketa-eginbidea.

### Garbiguneetako ordutegiak aldatu dituzte

Abenduaren 1az geroztik ordutegi berria dute eskualdeko lau garbiguneetan, Debabarrenako Mankomunitatetik jakinarazi dutenez. Orain, astelehenetako ordutegia 15:45etatik 18:15etarakoa izango da, eta goizez itxita egongo dira. Martitzenetik barikura, berriz, 9:00etatik 13:00etara eta 15:45etatik 18:15etara zabalduko dituzte, eta zapatuetan orain arteko ordutegia mantenduko dute, 9:00etatik 13:00etarakoa.

### Batxilergoko errifaren zozketa egin dute

Batxilergoko ikasleek ikasbidairako dirua lortzeko errifak saldu dituzte, eta egin dute zozketa. 1. saria: 11795 (1. ordezkoa 7753 / 2. ordezkoa, 5144). Belaustegi jatetxean dastatze menua jasoko du. Bigarren saria 13905 zenbakiarentzat izan da (1. ordezkoa 1103 / 2. ordezkoa 5499). Janariz eta edariz beteriko otarra jasoko du bigarrenak. Irabazle zein ordezkoek mezu bat bidali behar dute: [luciaarriolaest@gmail.com](mailto:luciaarriolaest@gmail.com) / [anesantolaya@gmail.com](mailto:anesantolaya@gmail.com) helbideetara

### Hilaren 18ra arte bozkatu daiteke erakusleihoen lehiaketan

Elgoibarko 21 saltokik eman dute izena Gabonetako Erakusleiho Lehiaketarako eta domekara arte aukeratu dezakete herritarrek euren gustukuena. 16 urtez gorako edonork parte hartu dezake bozketan eta [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) webgunearen bidez eman behar da botoa. Parte hartzen duten guztien artean 50 euroko erosketa bonoa zozkatuko dute, lehiaketan parte hartu duten dendetan gastatzeko.

Lehiaketan, edonola ere, hiru sari izango dira jokoan: hiru lagunek osatutako epaimahai tekniko batek aukeratuko ditu lehenengo bi saridunak, eta herritarren boto bidez izendatuko da hirugarren sariduna. Lehenengo saria eskuratzen duen saltokiak 300 euroko erosketa-txekea jasoko du, lehiaketarako izena eman duten establezimenduetan trukatzeko. Bigarren saria, berriz, 200 euroko bonoa izango da. Herritarren gustukuena suertatzen den erakusleihoaren jabeak, berriz, 100 euroko erosketa-txekea jasoko du. Epaimahaia honako hiru lagunekin dago osatuta: Original Komunikazio Grafiko enpresako Olatz Oñederra, Nuvan enpresako Mireia Uncetabarrenechea eta Cristina Bragado, eta italiar marka ezagun baten erakusleiho apaintzailea den Unai San Martin. Sariak banatzeko ekitaldia abenduaren 21ean egindute dute, 13:15ean.





# Olentzeroren zakua Elgoibarren!

Gehigarri honetan aurkituko dituzun boletoekin deskontuak eskuratuko dituzu, abenduaren 16tik urtarrilaren 5era arte. Erosketa bakoitzeko boleto bakarra erabili daiteke, eta ezin zaizkie bestelako deskontuei gehitu.

KARKIZANO

**%10** eko deskontua ume pijametan tiket hau ekarriz gero.

## AUZOARI NORTASUNA EMATEN DIOTE

Herriko dendek eta tabernekin eguneroko bizitza animatzen dute, kaleei giroa eta nortasuna ematen diete eta jendez betetzen dituzte. Herria biziago egiten dute eta hobekuntza bultzatzen dute. Denda txiki askoko auzo batean paseatzea erakuslehoak ikustea da, merkatarik eta ostalariek antolatzen dituzten jarduerak eta ekimenekin harritzea, etab. Egiten duten lana aitortu behar zaie, gure kaleen segurtasunari egiten dioten ekarpena, kaleak garbi, beteta eta argituta edukitzean. Saltokirik gabe, eraikinak degradatu egingo lirateke, eta auzoak hutsik geratuko lirateke.

**IRIONDO**  
**KIROLAK**  
FRENCH & KALEARRAKO KIROL PIZKA ELIZKOLA

**Mendirako edo kalerako!  
Aterki arina eta gogorra!  
Gabonetarako opari aukera zabala!**

**Uzuri** optika audio

San Frantzisko, 21 - Elgoibar - 943 740 359  
www.uzurioptika.com

**Ikus zaitzatela  
beste modu batean  
Gabonetan;  
oparitu betaurrekoak!**

**%15<sup>eko</sup>  
deskontua**  
eguzkitako betaurrekoetan.

### ENPLEGUA SORTZEN DUTE

Langile gehien kontratatzen dituzten enpresak dendak, jatetxeak, tabernak eta auzoko negozio txikiak dira, eta, aldi berean, horiek dira krisia gehien pairatzen dutenak, ezin baitute lehiatu saltoki handiekin baldintza berberetan. Horiek guztiak babestea gure esku dago.

GYS SPORT CASA ELGOIBAR  
**ASTIGARRAGA**

Txartel hau  
ekarriz gero

**%15<sup>eko</sup>  
deskontua  
berokietan!**



**Nº1**  
en elgoibar

Errosario, 18 - 943 743 268  
Errosario, 21, behea - 943 744 386

**GARATE**  
JANTZI-DENDA

943 741 129 - 688 867 348



garatedenda



garatejantzidenda

**Kemen**  
belar denda 1

San Bartolome, 7 943 744 031

**Gabon hauetan mimatu zaitetz.**  
Kemen belar dendan,  
aholkuak emango dizkizugu,  
eta modu natural batean,  
hobetzen lagunduko dizugu,  
zure gorputza eta  
buruaren arteko oreka zainduz.  
Aholkularitza pertsonalizatua.

**Mila esker guztioi,  
beti hor izateagatik!**

**2023. urte oparoa guztiontzat!**



**AR** **ARAMBURU BITXIDENDA**  
San Frantzisko, 26  
943 742 535

Erosi zure oparia Aramburu bitxidendan eta

**600€ko bi bonoren zozketan**  
parte hartuko duzu.

**ecenarro**

Realeko arropa  
ofiziala:

- Unisex pijama
- Bata
- Mantak



San Frantzisko, 10 943 742 619

### TOPAGUNEAK

Tokiko negozioetako harremanek auzoen arteko harremanak sendotzen dituzte, eta herritarrentzako informazioa jaso eta zabaltzeko gune, topaleku eta solasaldi bihurtzen dituzte; izan ere, dendara jaistea edo kafe bat hartzea jaistea beti da aukera egokia auzoan gertatzen ari denaren berri izateko. Adineko personengan eragin handia daukate, merkatari eta ostalariekin haren zuzena eta familiarra izatea eskertzen baitute.

**Cristina Garcia**

Estetika eta Tonifikazio Naturalak

**Oparitu atsedena Gabonetan**

Erritual-bonoak

Aurpegia tratatzeko bono pertsonalizatuak

Gorputza tratatzeko bonoak

Kosmetika kaxak

Errosario kalea, 19



**943 742 950**



cristina.garcia.estetika



### AUZOARI NORTASUNA EMATEN DIOTE

Herriko dendek eta tabernek eguneroko bizitza animatzen dute, kaleei giroa ematen diete eta jendez betetzen dituzte. Herria biziago egiten dute. Denda txiki askoko auzoan paseatzea erakusleihak ikustea da, merkataria eta ostalariek antolatzen dituzten jarduerak eta ekimenekin harritzea, etab. Egiten duten lana aitortu behar zaie, gure kaleen segurtasunari egiten dioten ekarpena, kaleak garbi, beteta eta argituta edukitzean. Saltokirik gabe, eraikinak degradatu egingo lirarteke, eta auzoak hutsik geratuko lirarteke.



Tiket hau aurkeztuta  
**%10eko**  
deskontua  
izango duzu  
berokietan.



Tiket hau aurkeztuta  
**%10eko**  
deskontua izango duzu  
berokietan.

 sarajantzidenda

# Sara

Errosario, 14 - 943 743 555

Tiket hau ekarriz gero  
**5€-ko** deskontua  
jasoko duzu zure erosketan.  
(Urtarrilaren 5era arte erabilgarri)



# DOMINIA MERCEDES

LEBADO MURUA



Erreserbak: 943 732 239 - 943 742 652

### KONPROMISOA

Herriko saltoki txikietan eta ostalaritzan kontsumitzea aukera bat da. Erosketak egitea gure eguneroko jardueretako bat da, eta herritarrok gizarte-aldaketarako funtsezko tresna bat dugu eskura: kontsumoa. Kontsumitzaile garen aldetik, erantzukizuna dugu, baina boterea ere badugu, ekonomia eta munduaren bidean zuzenean eragin dezakegu. Gure usteen arabera, gure erabaki-irizpidea erabiltzeko eta jasagarritasunaren eraikuntza sustatzeko aukera dugu, gure erosketa-ereduen bidez. Beraz, erosi dezagun herrian, mantendu dezagun herria bizirik!

37 establezimenduk eta ia 100 merkatarik parte hartzen ari dira  
**ELGOIBARREN,**  
eta zuk, zer aukeratzen duzu?

eskatu  
euskaraz  
eskaini  
euskaraz



### Zuk aukeratzen duzu

Badakizu aukeratzen duzun hitzaren arabera izango direla zure harremanak?







## ALVARO ARRIZABALAGA

Historiaurreko Ikerketa Taldeko burua EHU

✍ Ainara Argoitia

Alvaro Arrizabalaga (Oñati, 1965) EHUko katedraduna eta Historiaurreko Ikerketa Taldeko burua da eta Mari Jose Iriarte Ikerbasqueko arkeologia eta paleobotanika irakaslearekin batera zuzendu zituen Mendaroko Agarre kobazuloan hasitako indusketa lanak. Duela 25.000 bat urteko margoak topatu zituzten han, bai eta Paleolitoko bi pieza ere, azagai bat eta zintzilikario bat [Ordura arte Agarrekoaren itxurako zintzilikario bakarra zegoen, Urdazubin topatutakoa]. Mendaron, baina, aztarnategi gehiago ere badirela sinetsita daude, eta azterketa zabalago bat hasi dute. Egiteko horretan herriko lagun talde baten laguntza dute.

■ ■ *Mendaron beste 5-6 aztarnategi egon daitezkeela esatea ez da disparatea* ■ ■

**'Aurkikuntza gehiagorako toki oparoa ematen du Agarreko kobazuloak' esan zenigun 2019an, labar-arte eta arte erabilkorra aurkitu zenuela zabaldu zenuetan. Nola dago kontu hura?**

Jarraitzen dugu lanean, baina urte oso bereziak izan ditugu. Landa-lana antolatzeke tokiko baldintzak hartu behar izaten ditugu kontuan, eta Agarrekoa kobazulo lehorra baina itxia izanda, ezinezkoa izan zaigu lan egitea, COVID-19agatik ezarritako segurtasun neurriak bete behar genituelako. Horregatik, azken bi urteetan ezer gutxi egin ahal izan dugu. Baina ez daukagu albora lagata eta eusten diogu 2019an esandakoari.

Uztailean hasi ginen berriro lanean, baina taldeko batek positibo eman zuen eta bertan behera laga behar izan genuen dena berriro. Hala ere, lanean jardun ginen tartean emaitza oso interesgarriak lortu genituen. Harrizko eta hezurrezko tresneria topatu genuen, eta harrizkoak nahiko ohikoak izan daitezke, baina hezurrezkoak ez dira hain maiz aurkitzen. Topatu genuen, adibidez, azagai baten zatia, apaunduraduna, eta horrek aditzera ematen du Madalen aldiko material gehiago badagoela.

**Asmo handiagoen berri ere jakin dugu. Zer duzue aurreikusita egitea Mendaron?**

Urteetako proiektu bat jarri nahi dugu martxan, Mendaro leku aberatsa dela sinetsita gaudelako. Deban esaterako hainbat urtetan aritu dira arkeologoak aztarnategi bila eta ikusi da oso emaitza oparoak eman dituela lan horrek. Beste aldera, Urola eta Deba bailara arte horretan, lanean ari dira Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiaurreko Saileko arkeologo Jesus Tapiak zuzendutako taldea eta EHUKo talde bat elkarlanean, Elosua-Plazentzia Estazio Megalitikoan. Mendaro bertan dago, eta horrek eta orain arte egin diren aurkikuntza interesgarriek bidea ematen dute pentsatzeko hemen ere oparotasun hori izango dugula. Hor daukagu batetik, Aldatxarreko aztarnategia. Arabako arkeologo bat aritu zen han lanean 2004-2007 bitartean eta duela 27.000 urteko okupazio baten arrastoak daude, ondo datatuta. Eta hor dauzkagu bestetik aipatu berri dugun Agarreko kobazuloa eta Aizkoltxo, oso aztarnategi garrantzitsua dena topatu duten materiala aintzat hartuta [Goi Madeleine aldiko lau zulodun makila baten berri eman zuten 2020an. Lau zuloduna izateak eta oso apainduta egoteak egiten zuen hain berezi, baina aldi berean esan zuten Aizkoltxoko hori topatu arteko guztiak Akitanian, Frantzia, topatu izan zituztela, eta horrek ere egiten zuela apartekoa pieza hori]. Zonalde oso txiki batean hiru aztarnategi dituzue, Paleolito garaiaz gehiago jakiteko. Potentzialitate handiko eremua da zuena, baina alderatuz gero Debarekin adibidez, Mendaron oso gutxi ikertu da eta konbentziturik gaude oso leku aproposa dela gehiago sakontzeko aurreko miaketa lanetan.

### **Obrak direla eta Aizkoltxo arriskuan ikusten duenik ere bada inguruotan. Zer diozu zuk?**

Ez daukat momentuan galdera horri erantzuteko behar beste informazio. Berez, zehaztuta daude aztarnategi arkeologikoak babesteko mekanismoak, bai eta obra publikoek eragin ditzatekeen kalteak neurtzekoak ere. Gehiago sakondu gabe, ezin dizut erantzun, hala ere.

**Irulegiko eskuaren harira, Iñaki Sanz Azkue Aranzadi Zientzia Elkarteko kideari irakurri genion zein garrantzitsua diren erabaki politikoak. Zioen musutruk hasitako ikerketen emaitzen arabera dirua jartzea baino gehiago, ikerketak sustatzeko aurrekontuak behar direla. Ezinbestekoa ikusten zuen, zientzia gizartera hurbiltzeko. Pentsatzekoa da proiektu honetarako ere beharko dela laguntza.**

Bai, bai, konformenago Iñakik esandakoarekin, ikerkuntzarako ez delako iristen behar den beste diru sekula, arkeologiara ez behintzat. Ezin dugu ukatu zein den gure tradizioa, tradizio industrial, eta ikusten dugu baliabide gehienak horra bideratzen direla. Gure eskarmentua hori da. Mendaron badaukagu 2022rako sinatuta zerbait eta imajinatzen dut iritsiko dela. Baina gure helburua ez da hainbeste dirua, baizik eta tokian tokiko kultur eragileekin lankidetzarako bideak sustatzea, jakin badakigulako jasoko dugun dirua sekula ez dela nahikoa izango. Proiektu honek epe ertainerakoak izaten dira gutxienez, eta pentsatu behar dugu 8-10 urtez luzatu behar direla, benetan eragin arkeologikoa izateko. Eta horregatik behar dugu harreman hori sustatu, interesa pizteko, gizarteak beste begi batzuekin ikus dezan egiten ari garena.

### **Jakin badakigu herritar talde bat ari dela kobazulo bila eta inguruak garbitzen. Zein lagungarri zaizkizue zuei halako ekimenak?**

Guretzat oso da garrantzitsua jende hori asteburu egiten ari den lana. Beharbada batzuei oso lan xumea dela irudituko zaie hauek egiten ari direna, baina guretzat oso da lagungarria. Kobazuloen ahoak topatzen dituzte, brujularen laguntzarekin markatzen dute atakaren orientazioa eta informazio horrekin kobazulo edo leku interesgarri bakoitzeko txostentxo bana egiten digute. Ondoren, geu joaten gara balizko aztarnategien hierarkiazioa egitera, hori espezialistok bakarrik egin dezakegulako, baimen bereziekin. Baina, tokiko pertsona interesatuek guk baino hobeto ezagutzen dute ingurua eta denbora asko aurreztea ahalbidetzen digute.

### **Hiru aztarnategi daude aztertuta Mendaron. Hori egon daitekenaren zer parte litzateke?**

Atrebentzia handia litzateke galdera horri erantzutea, baina esan daiteke beste bost edo sei aztarnategi egon daitezkeela esatea ez dela disparatea. Gure alorrean denbora behar da emaitzetara iristeko. Ikusi dugu Irulegiko eskua topatu zutenetik haren berri eman duten arte ere zenbat denbora pasatu den. Esango nizuke futbolekin alderatuta Mendaro ez dagoela egun Lehenengo Mailan, baina potentzial handia duela urte batzuen buruan Lehenengo Maila horretan aritzeko ■

# ■ 3 MILIOI EUROKO AURREKONTUA ONARTU DU MENDAROKO UDALAK 2023. URTERAKO

✍ Ainara Argoitia

**Mendaroko Udalbatzaren osoko bilkurak astehenean onartu zuen 2023rako aurrekontua, ezohiko batzarrean, EAJko zinegotzien eta PSE-EEkoaren botoekin. EHBilduko bost zinegotziek kontra bozkatu zuten, euren ekarpenak kontuan hartu ez direla arrazoituta. 2023rako aurrekontua 3.053.806 eurokoa izango da, iazkoa baino %0,06 handiagoa.**

3.053.806 euroko aurrekontua izango du Mendaroko Udalak 2023an, iazkoa baino 1.808 euro handiagoa (0,06). Aurrekontuari atalka erreparatu gero, alderik ez dago gaztaren banaketan, 2022koarekin alderatuta: aurrekontuaren %37,13 Lurraldea-Hirigintza atalera bideratu dute (1.105.070 euro), %39,04 Herritartasuna atalera eta gainerako %23,83 Antolakuntza atalera. Abenduaren 12an onartu zituzten aurrekontuak, ezohiko batzarrean, EAJren eta PSE-EEren babesarekin. Mari Jose Telleria PSE-EEko zinegotziak alde bozkatu zuen. "Konfiantzan oinarritutako botoa da gurea", esan zuen. Telleriak aipatu zuen bazekiela iazko gauza batzuk ez direla bete baina baduela konfiantza aurten beteko direla. EHBilduko bost zinegotziek, berriz, kontra bozkatu zuten -iaz abstenitu egin ziren-, aurrekontu proposamenari egin zizkieten emendakinak jaso ez direla eta negoziatzeko aukerarik izan ez dutela arrazoituta.

"Aurrekontu honekin herria berraktibatzen jarraitu nahi dugu, mendaroarrak erdigunean jarrita, ongizatea bermatuz eta herriaren garapen integrala bultzatuz", zabaldu du Iñaki Arregi alkateak, prentsa ohar bidez. Horren harira zehaztu du Gizarte Ongizate Sailak 30.000 euro gehiago jasoko dituela 2023n. Ongizate Saileko diru-kopuru handiena Eguneko Zentroaren kudeaketarako izango da: 236.000 euro. Gizarte- eta Hezkuntza-alorreko esku-hartze programetarako 40.000 euro gorde dituzte, iaz baino %25 kopuru handiagoa. Era

berean, etxez-etxe laguntzarako 111.000 euro izango dira, eta gizarte larrialdietarako laguntzen %100a ordaintzeko konpromisoa hartu dute, "beharrezkoa balitz aurrekontua handituta". Bestalde, Azpilgoetako Eguneko Zentroan zabaldu dituzten tutoretzapeko apartamentuen zerbitzua finantzatzeko 5.000 euro erabiliko dituzte, eta berdintasuna sustatzeko ekintzetarako diru laguntza handitu dute, 6.000 eurotik 15.000 eurora.

"Egin dugu eta jarraituko dugu une zailetatik onena ateratzen. 2023ak Mendaro berri bati emango dio bidea, bereziki kirolen alorrean edota irisgarritasunean eta herriko gunen ugariaren

## 2023ko udal aurrekontuaren laburpena

### SARRERAK

Zuzeneko zergak.....	459.500
Zeharkako zergak.....	20.000
Tasak eta bestelako sarrerak.....	324.500
Transferentzia arruntak.....	1.952.706
Ondare sarrerak.....	10.900
Ondasun besterentzea.....	0
Kapital transferentziak.....	286.200
Finantza aktiboak.....	0
Finantza pasiboak.....	0

### GASTUAK

Langileen ordainsariak.....	717.165,87
Ondasunen arruntan eta zerbitzu erosketak.....	1.641.154
Finantza gastuak.....	0
Transferentzia arruntak.....	188.550
Kreditu globala.....	125.000
Inbertsio errealak.....	346.936,13
Kapital transferentziak.....	35.000
Finantza aktiboak.....	0
Finantza pasiboak.....	0



## 2023ko inbertsio nagusiak

■ Landa guneko inbertsioetarako.....	155.000
■ Landa lurra topografikoki mugatzeko.....	28.500
■ Azpilgoetako eta Kilimon Hiribideko irisgarritasuna hobetzeko.....	27.786,
■ Hirigintzako obra txikietarako.....	20.000
■ Baliabide energetiko berriztagarriak ezartzeko-EKIOLA.....	18.150
■ Auzoetako hobekuntzetarako.....	15.000
■ Brigadarentzako ibilgailua.....	15.000
■ Hilerriko obretarako.....	10.000
■ Kirol ekipamenduetan inbertsioak egiteko.....	10.000
■ Liburutegian inbertsioak egiteko.....	10.000
■ Gazte Plana.....	9.000
■ Eguneko zentrorako.....	5.000
■ Ekipamendu kulturaletan inbertsioak.....	4.000
■ Biltegiarako altzaritarako .....	3.000
■ Bake epaitegia.....	3.000
■ Informatika prozesuetarako ekipoetarako.....	3.000
■ Kultur etxerako altzarietarako.....	2.000

## Aurrekontuak, sailka

■ ANTOLAKUNTZA SAILA.....	727.157,50 (%23,83)
■ LURRALDE eta HIRIGINTZA SAILA.....	1.105.070 (%37,13)
■ HERRITARTASUN SAILA.....	1.221.670 (%39,04)
Herritartasun Sailaren barruan, kulturarako 659.640 euro izango dira eta Gizarte zerbitzuetarako eta Berdintasun sailerako, 562.030)	
<b>GUZTIRA.....</b>	<b>3.053.806</b>

berroneratzean", azpimarratu du alkateak. Alor ekonomikoan, nabarmendu du bigarren urtez 60.000 euroko partida izango dela aurrekontuetan Mendaron enplegarritasuna bultzatzeko. Lurraldea atalean, Lanbide bidez kontratatutako udal langileen kontratuen luzatzea finantzatu du Udalak. Iaz, bi langile kontratatu zituzten, lanaldi osora bata eta lanaldi erdira bestea, eta aurten, bi langile izan dira lanaldi osora eta beste bat, erdira. Hirigintza Plan Orokorra eguneratu ahal izateko partida ere aurreikusitako dute, 28.400 eurokoa, eta landa eremuko inbertsioetarako partida 5.000 euroan handituko dute, 155.000 euroraino. Hasitako beste lan batzuen jarraipenerako partidak ere nabarmendu dituzte aurrekontuetan: Batetik, baliabide energetiko berriztagarriak ezartzeko eta EKIOLA plaka

fotovoltaiko komunitarioen proiektua garatzeko 18.500 euro izango dituzte eta landa lurra topografikoki mugatzen jarraitzeko 10.000 euro gehiago gorde dituzte 2023rako, 28.150 euro.

Dirulaguntza kontzeptuan banatuko duten dirua ere zehaztu dute, nagusienak: Etxebizitzetan obrak egiteko (35.000), Ameikutz musika eskolarako (28.000), euskara ikasteko (5.000), auzo taxia (5.000), Arno Guraso Elkartearantzako laguntzak (5.000 euro eskola kirolerako eta 2.600 ekintzetarako), Elgoibarko Izarra eta BARREN (15.000), zaintzarako dirulaguntzak (2.500), etxebizitza alokatzeko gazteentzako laguntzak (3.000), lokal komertzialak zabaltzeko laguntzak (2.500), Herri identitatea sustatzeko Don Angel beka (8.000), jai batzordeetarako (3.000), MTE (7.000), exta-eskolarretarako laguntza (1.500)...



# PARRANDARAKO KONTZEZIOA

✂️ Ainara Argoitia

Baserriko sasoiko produkturik onenak, ganadu erakusketa, sagardo lehiaketa, artisautza-lanak, minbizia dutenei laguntzeko Izan inurri proiektuak eta herritar batek jarritako postua, Institutuko ikasleek ikasbidairako dirua lortzeko prestatutako mokadu beroak eta Arno Guraso Elkartearen postua, herriko dantzarien dantza emanaldia, erromeriagiroa eta jendetza. Ohiko osagaiak izan ditu Kontzezio azoka egunak. Aldarrikapenerako tarterik ere izan da, baina, aurren. Tratu Onen Aldeko Taldeak deituta, indarkeria matxistaren kontra batu dira herritarrak. Argazki gehiago: [barren.eus](http://barren.eus) ■











*Agurtzane Lartain, Mainer Aramburu, Nekane Iturbek, Onintza Aramburu eta Lurdes Lartain.*

## 'Tempus fugit': 60 urte denbora neurtzen

**60 urte bete ditu Aramburu Bitxitegiak. Denda bera da bitxia, eta zailtasun guztien gainerik egiten du dir-dir, eta ematen du argia. 60 urte egin dituzte bitxigintzan, eta oraindik ere aurrera segitzeko kementsu eta ilusioz daude. Ramon Aramburuk hasitako bideari heldu zion Nekane Iturbek, eta orain haien alaba Onintza eta Mainer dira negozioaren gidari. Agurtzane eta Lurdes Lartain ahizpekin osatzen dute guztiak Aramburuko familia.**

### **Noiz eta nola sortu zen Aramburu bitxi-denda?**

Gure aita Ramon Arambururen ilusio, ekimen eta lanari esker sortu zen Aramburu Bitxi-denda. 12 urte zituela hezurretako infekzio batek jo eta

urteak egin zituen ospitaletan aitak, 20 urte bete zituen arte. Ospitaletan gaixoak bisitatzen zituen Beasaingo emakume bati esker, erlojugile ofizioa ikasteko aukera izan zuen. Ospitalean zegoela, emakume hark semea erlojugilea zuela esan zion, eta ofizioa erakutsiko ziola agindu. Horrela, berarentzat guztiz berria zen ofizioa ikasi zuen eta gaixotasuna gainditu zuenean, erlojugile lanean hasi zen bitxi-denda batean. Erlojugile eta dendari lanetan trebatu zenean, laster hasi zen bere denda irekitzarekin amesten. 1962. urtean, 27 urte zituela, denda irekitzeko aukera ikusi zuen Elgoibarren, eta baliabide gutxirekin, baina lan, ahalegin eta ilusio handiz, ametsa egi bihurtu zuen: Aramburu Bitxi-denda irekitzea.



**GAUR! Pedro Miguel Urruzuno 27an egingo dugun MOKADUTXORA gonbidaturik zaude!**

Orduan ez zuen usteko 60 urte geroago denda martxan egongo zenik.

### **Elgoibarko dendaz gain beste negozio batzuk ere sortu al zituen?**

Bai. Oso gizon ekintzaile, langile eta ausarta zen. Elgoibarko denda ondo finkatuta zegoela, gure ama, Nekane, dendan lanean hasi zen, eta bien artean, negozio lerro berriak jarri zituzten martxan. Kordoban bitxi tailer bat izan zuten, Mara izeneko bitxi marka propioa ere sortu zuten bazkide batekin, Bilbon Tilbury izeneko denda zabaldu zuten, baita Oñatin ere, eta aldi berean, handizkako bitxi salmentan hasi ziren. Bitxien sektorean, estatu mailan profesional errespetatua izatea lortu zuen. Azken urteetan, diamanteen munduan ere murgildu zen Ramon. Guzti horiek aurrera ateratzeko, gurekin batera profesional bezala hazi diren hainbat langileren lana ere ezinbestekoa izan da. Lurdesek eta Agurtzanek, esaterako, duela 37 eta 24 urtetatik dihardute gurekin lanean, hurrenez hurren. Eta Oñatiko dendaren kasuan ere, Mari Pazek eta Arantxak 20 urte daramatzate gurekin.

### **Nolatan bukatu duzue alabak dendan lanean?**

Informatika eta enpresa zientzietako ikasketak bukatu ondoren, urtebeterako dendan lan egiten hasi ginen, probatze aldera. Epe hori bukatzean, dendak jarraipena izatea nahi genuen, umetatik bizi izan dugun mundua delako, eta gurasoen ekarpen eta ereduarekin jarraitzea erabaki genuen.

### **60 urte hauetan momentu gogor zein politik biziko zenituzten...**

Bai, hasierak beti dira gogorak... baliabide gutxiarekin hasi zen gure aita. Urteetan zehar krisi garaiak, indarkeriaz eginiko lapurreta edo hutsetik berriz hastera behartu gintuzten bi uholde ere jasan ditugu, baina elgoibartarrek gudan izan duten konfidantzari esker, guzti horiek gainditzea lortu dugu. Dena dela, momentu onak askoz gehiago izan dira. Adibidez, bitxien negozioa betidanik negozio familiarra izan da, bai dendari

eta bai fabrikatzaileen kasuan. Honek harreman profesionalaz gain, harreman pertsonalak egiteko aukera ere eman digu. Fabrikatzaile, saltzaile eta dendari asko aspaldiko lagunak ditugu.

Eta hunkigarria da "nire lehen jaunartzean, duela 60 urte, zure aitari erositako erlojua oparitu zidaten, eta oraindik gordeta daukat eta ondo funtzionatzen du" edo "nire amonak zure aitari erositako belarritakoak eramango ditut nire ezkontza egunean" entzutea. Urrezko bitxiak betirako dira eta belaunaldiz belaunaldi irauten dute. Sarritan famili bereko lau belaunaldi ezagutzeko aukera izan dugu 60 urte hauetan.

### **Zer zerbitzu eskaintzen dituzue?**

Gaur egun Elgoibarren eta Oñatin dauzkagu dendak, eta handizkako bitxi salmentarekin jarraitzen dugu. Erloju eta zilarrezko zein urrezko bitxiak saltzen ditugu, baita mota guztietako konponketak egin ere. Gaur egungo beste salmenta mota batzuekin alderatuta, herriko denda txikietan gertatzen den bezala, guk tratu pertsonalizatua ematen dugu, erloju zein bitxiak ukitu eta probatzeko aukera emanez. Markako artikulu komertzialez gain, momentu berezietarako (ezkontza, urteurren, urtebetetze, ikasketa graduazio...) neurri egindako bitxien diseinu pertsonalizatuak egiten ditugu, bezeroen ideia konkretuak gauzatuz. Bitxiak ez direlako objektu hutsak, familia ondarea baizik, eta momentu garrantzitsuen gordailu. Gugana etortzera gonbidatuta zaudete, bizitza guztirako opari berezi hori behar duzuenean. Hainbeste urteren ondoren bezeroak lagun bihurtzen dira eta gure helburua dendan erositako bitxiekin gustura egotea da.

### **Nola ikusten duzue etorkizuna?**

Denda txikiei ez dizkigute gauzak erraz jartzen, baina gu lanean jarraitzeko gogotsu gaude. Aitarena zen eta gure egin dugun ametsari tinko eusten saiatuko gara, gaur egungo erronkei aurre eginez eta espero dugu, elgoibartarren konfidantzarekin, beste urte askoan irautea urre eta harribitxien distira artean.

**18:00etatik 20:00etara zure zain izango gaituzu,  
60 urte hauek zuekin ospatzea baino gauza hoberik ez dagoelako!**



## ELGOIBARREN 25 HIZKUNTZATIK GORA DAUDELA USTE DA

 Ainara Argoitia

**Elgoibarko hizkuntza aniztasunaren mapa osatu du Soziolinguistika Klusterrak, Udalaren enkarguz. Hizkuntza aniztasuna aberastasuna dela inork gutxi jartzen du zalantzan, eta aniztasun hori kudeatzeko lagungarri izango delakoan osatu dute mapa. Elgoibarren erroldatuta dauden biztanleen jatorriak aztertu dituzte horretarako eta hortik ondorioztatu dute herrian zenbat hizkuntza hitz egin daitezkeen, jatorri-estatuetakoa hizkuntza aniztasunaren araberako hipotesiak eginda. Ondorioa: 25 hizkuntzatik gorako hizkuntza-aniztasuna egon daitekeela Elgoibarren.**

**B**iztanleen jatorriaren araberako azterketa da martitzenean Udalak eta Soziolinguistika Klusterrak aurkeztu zutena, eta beraz, ez du balio Elgoibarko biztanleek zenbat eta zeintzuk hizkuntza berba egiten duten ziurtasun osoz esateko, baina bai hurbilpen bat egiteko. Elgoibarren hitz egiten diren hizkuntzak zenbat eta zeintzuk diren zehatz jakiteko, galdetu egin beharko litzaieke herritarrei eta gaur gaurkoz ez dago horretarako prozedura edo protokolorik,

baina mapa honek balio du argazki bat osatzeko, bai eta hizkuntza guztiei aitortza egiteko ere, euskara erdigunean jarrita.

2022ko udal errolda erabili dute azterketarako eta honako hiru ezaugarriren bat duten biztanle guztiak hartu dituzte jatorri atzerritarreko biztanletzat: Espainiako estatuan jaio eta atzerritarra izatea, hau da, estatu espainiarreko nazionalitatea ez izatea [Izan ere, *atzerria* kategoria Espainia kanpoko estatuei esleitu diete eta *atzerritar*, berriz, estatu espainiarreko nazionalitatea ez duten biztanleei]; *atzerrian* jaio eta nazionalitate espainiarra izatea, eta *atzerrian* jaio, baina Espainiako nazionalitatea ez izatea. Eta erabili dituzten hipotesiak, berriz, honako hauek izan dira: batetik, jatorri atzerritarreko biztanleek euren jatorriko hizkuntza ofiziala(k) berba egiten di(t)u(z)tela, nahiz jakin beti ez dela hala, badaudelako euren estatuko hizkuntza ofiziala hitz egiten ez dutenak. Bestetik, identifikatu behar direla jatorrizko herrialdeetan zer hizkuntza minorizatu hitz egin dezaketen, hizkuntza ofizialez gain; eta azkenik, kontuan hartu behar direla baita ere gaztelaniaz gain beste hizkuntza bat berba egin dezaketen estatuko beste autonomia erkidego batzuetan jaio eta Elgoibarren bizi diren herritarren datuak.

### **BIZTANLEGOA, JATORRIAREN ARABERA**

Elgoibarren 11.464 biztanle daude, eta horietatik 1.448 jatorri atzerritarreko biztanleak dira (%12,6). Talde handiena *atzerrian* jaio eta Espainiako nazionalitaterik ez dutenek osatzen



dute: 948 guztira, biztanleen %8,3. Espainiako estatuan jaioren arren, espainiar nazionalitatearik ez dutenak %1 dira, 109, eta gehienak migratzaileen seme-alabak dira. Atzerrian jaioren arren Espainiako nazionalitatea dutenek osaten dute beste taldea: 391 biztanle (%3,4).

### **BIZTANLEGOA, SEXUAREN ETA ADINAREN ARABERA**

Askotan uste izan da migratzaileak gizonezko gazteak izan ohi direla bereziki, baina azterketak erakutsi du immigrazioaren feminizazio bat badagoela eta jatorriko estatuaren arabera, feminizazio hori handiagoa dela gainera. Amerikatik etorritakoen artean, 169 emakume gehiago dira gizonezkoak baino. Aldiz, Afrika, Asia eta Europako jatorria dutenen artean, gizonak gehiago dira, bereziki Afrikako kasuan.

Biztanleria adinaren arabera aztertuta ondorioztatu dute 16 urtez azpikoak direla herritarren %16,2 eta proportzioa antzekoa dela adin tarte horretako jatorri atzeritarreko biztanleen artean (%14,4). Gazteen proportzioa, aldiz, handiagoa da jatorri atzeritarrekoen artean (%11) biztanleria orokorrean baino (%8). Alde hori, baina, bereziki da handia 25 eta 44 urte bitarteko herritarren artean, izan ere, adin tarte horretakoak dira jatorri atzeritarreko herritarren ia erdia (migratzaileen %49). Eta bada datu bat nabarmentzekoa: biztanleria osoaren joera ez da betetzen jatorri atzeritarrekoekin. Izan ere, jatorri atzeritarrekoen artean %60 dira 17 eta 44 urte bitartean dituztenak, eta biztanleria osoa hartuta, kopurua %31koa da.

### **JATORRIAREN ARABERA**

Elgoibarren bizi diren jatorri atzeritarreko biztanleen %92,9 hogeitau estatu ezberdinetatik etorritakoak dira, eta hortik aurreikusitako dute estatu horietako hizkuntzek izango dutela pisurik handiena Elgoibarren. Marokotik etorritakoak osatzen dute giza-talde handiena, eta ondoren datoz, Nikaragua, Bolivia, Portugal, Pakistan, Errumania, Kuba, Senegal eta Ekuadorretik etorritakoak (50na biztanletik gora dituzte). Venezuelak, Dominikar Errepublikak, Hondurasek, Kolonbiak, Brasilek, Argentinak, Txinak, Nigeriak, Frantziak, Mexikok eta Ukrainak

10 eta 50 biztanle arteko kopuruak dituzte.

Gainerako biztanle atzeritarrek (%7,1) 32 estatutan dute jatorria. Biztanle-kopuru oso txikiak dira horiek, 10 biztanle baino gutxiagokoak, baina hala ere, haien jatorri-estatuetan dagoen hizkuntza-aniztasuna ikusita, aurreikus daitezke hizkuntza asko hitz egin ditzaketela. Hor daude, esaterako, aljeriarrak (10 lagun), albaniarrek (9); alemaniarrek, mauritaniarrak eta peruarrek (7); errusiarrak (6); britainiarrek eta kongoarrak (5); El Salvador, Italia eta Kamerungoak (4), Guatemala, Guinea eta Kongoko Errepublika Demokratikokoak (3)... Baina bada beste talde handi bat, estatuko beste autonomia batzuetatik iritsitakoak osatzen dutena. Galiziarrek osatzen dute multzo handiena, katalanen, aragoiarren eta asturiarren aurretik, eta beraz uste da galegoz, katalanez, aragoieraz edo asturieraz berba egin dezaketen herritarrek badirela, hurrenkera honetan: 279, 51, 29 eta 21).

### **HIZTUN GEHIENEN HIZKUNTZAK**

Jatorri atzeritarreko biztanleen artean %49,2k gaztelania du hizkuntza ofiziala jatorrian, kasu batzuetan beste hizkuntza batzuekin batera: aimara, guarania, mapudunguma eta ketxua. Gainerakoan artean nagusi dira arabiera eta amazigera. Frantsesa, portugesa eta ingelesa ere hortxe dira. Urduak eta punjaberak ere presentzia esanguratsua izan dezakete herrian, kontuan izanda 71 pakistandar badirela. Pakistandarrek ingelesa ere hitz egiten dutenez, hizkuntza horren presentzia ere handia izan daiteke, ingelesa Amerikako eta Europako beste zenbait estatutan ere ofiziala delako, baita Afrikako zenbaitetan ere, Nigerian kasu. Errumaniera hiztunak, berriz, 70 bat izan daitezke, eta beste 50etik gorak wolof, fula edo serer hizkuntzak hitz egin dezakete, Senegalen hitz egiten direnak.

Jatorri atzeritarreko hizkuntza-komunitate nagusiak dira horiek, baina horiez gain, Amerikar jatorria duten guarania, kitxua, ketxua, aimara eta Afrikatik datozen bubiera, kitubera, kongoera, lingala, swahilia, tekera, umbundu eta Ozeaniatik etorritako tagaloa ere hitz egin dezaketen hiztunak ere izan daitezke gure artean, kopuru txikiagotan.

## Eguaztenean zabalduko dute parrokiako jaiotza mekanikoa

Elgojaiotza elkarteak hilaren 21ean zabalduko du parrokiako jaiotza mekanikoa, eta urtarrilaren 8ra arte egongo da ikusgai. Urtero bezala, berrikuntzak eta sorpresak iragarri dituzte, baina ez dute informaziorik aurreratu, beraz, bertara joan beharko da horiek ikustera. Astegunetan 17:00etatik 20:00etara egongo da zabalik, eta zapatuetan, jai bezperetan eta jai egunetan, berriz, goizez eta arratsalde; 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.



### Parrokiako jaiotza lehiaketa domekan izango da



Elgoibarko familia eta lagun taldeentzako jaiotza lehiaketa antolatu du domekarako Elgoibarko Parrokiako Katekesiak. Jesusen jaiotza irudikatu behar da, talde bakoitzak nahi duen materiala erabilita, eta lanak gehienez 75x40 zentimetroko neurria eduki beharko du. Sei laguneko taldeak osatu beharko dira gehienez, eta partaide bakoitzak ezingo du talde batean baino gehiagotan parte hartu. Lanak 11:00etatik 12:30era bitartean aurkeztu beharko dira Aita Agirre kulturagunean. Informazio gehiago eskuratzeko [elgoibarkojaiotzak@gmail.com](mailto:elgoibarkojaiotzak@gmail.com) helbidera idatzi daiteke.

### 'Rebelión en la granja' antzezlan gaur, Aitor Guisasola elgoibartarrekin

Aitor Guisasola elgoibartarra Herriko Antzokira itzuliko da gaur, Bilboko Alopargo Teatroaren *Rebelión en la granja* obrarekin. Manor Etxaldeko animalia guztiak elkartu egin dira, gizaki guztiak baztertzeko dituen matxinada bortitz batean, beren nagusiak, Jones Jaunak, ematen dien esklabotza erregimenagatik nazkatuta eta haserre. George Orwellen fabula ospetsutik sortutako obra da. Emanaldia 19:00etan izango da. Sarrerak salgai daude [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus) atarian eta txarteldegian bertan ere egongo da erosteko aukera.

### Gabonetako kontzertu berezia emango du Udal Musika Bandak domekan

Elgoibarko Udal Musika Bandak Gabonetako kontzertu berezia emango du domekan, Herriko Antzokian. Gorka Mujikaren zuzendaritzapean, Gabon kutsuko honako pieza hauek joko dituzte: *Los eukaros* (S. Agirre), *Moldav* (B. Smetana), *Christmas Fantasy* (J. de Haan), *Haurtxoa seaskan* (G. Olaizola) eta *Mesias Sarritan* (B. de Ercilla).

Horrez gain, abenduaren 24an Gabonetako kalejira egingo dute, 13:00etan hasita, eta ondoren, gabon kanta abestuko dituzte Kalegoen plazan.

## Maalako parketik abiatuko da aurten Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira

**A** benduaren 24an iritsiko dira Olentzero eta Mari Domingi Elgoibarrera umeen gutunak jasotzera, baina aurten aldaketak izango ditu kalejirak. Aurreko urteetan ez bezala, Maalako parketik abiatuko da kalejira. 11:15ean agurra dantzatuko diete herriko dantzariak Maalan bertan, eta 11:30ean abiatuko dira kaleetan barrena, Kalegoen plazaraino. Han estalpea prest izango dute, eta bertan egingo diete harrera herriko umeei. Atxutxiamaikatik laguntza eskatu dute egun horretako ekintzak antolatzeko. Interesatuak [atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus](mailto:atxutxiamaika@elgoibarkoizarra.eus) helbidera idatzi dezakete.



### Elgoibarko Izarrak tonbola jarriko du abenduaren 24an, Kalegoen plazan



Bi urteko etenaren ostean, bueltan da Elgoibarko Izarraren Gabonetako tonbola. Aurreko edizioetan bezala, abenduaren 24an izango da, Kalegoen plazan. Ia 2.000 opari bildu ditu elkarteak Elgoibarko eta Mendaroko enpresa, ostalari, merkatari eta establezimenduei esker, eta herritarren artean banatzeko prest dituzte guztiak. 11:00etan hasiko dira boletoak saltzen, eta 14:00ak arte egongo dira bertan. Lau txarteletik batek oparia dauka, baina oparirik gabeko boletoekin ere egongo da saria eskuratzeko aukera. Izan ere, 14:00etan telebista bat zozkatuko dute, saritu gabeko boletoen artean. Telebista irabazteko ezinbestekoa izango da zozketa unean plazan egotea.

### Abenduaren 20ra arte eskatu daitezke neguko aisialdi eskaintzarako dirulaguntzak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak emango ditu neguko oporraldiko aisialdiko eskaintza publikoan haur gehienei parte hartzeko aukera emateko. Familia ugarientzat eta guraso bakarreko familientzat, bigarren alaba edo semea inskribatzen duten familientzat edo honako dirulaguntza hauek jasotzen dituzten familientzat izango dira laguntza horiek: diru-sarrerak Bermatzeko Errenta edo Gizarte Larrialdietarako Laguntzak. DBE eta GLL jasotzen duten familientzako kuotaren % 70eko

laguntza izango da, familia ugarientzako eta guraso bakarreko familientzako kuotaren %30 seme-alaba bakoitzeko, eta inskribatutako bigarren seme-alabarengatik kuotaren %30 jasoko dute eskatzaileek. Aisialdi eskaintza hau Udal Ludoteka eta Atxutxiamaikak antolatu dute elkarlanean. Eskaerak abenduaren 20rako aurkeztu behar dira Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan edo udal egoitza elektronikoan. Informazio gehiago Udalaren [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus) webgunean.



# TERTULIAK: GUTXI ESKATU ETA ASKO EMATEN DUEN PROGRAMA

✍️ Ainhoa Andonegi / 🗣️ Asier Orbea

Euskaraldia ariketa sozialak iraun duen denboran euskaraz gehiago egiteko aukera izan dute askok, baina bada horretan jarraitzeko beste egitasmo bat Elgoibarren: Tertuliak. 2001ean jarri zuten martxan programa Elgoibarko Izarrak, Elgoibarko Udalak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak elkarlanean, eta etengabe dihardu ordutik elgoibartarrak euskaldunagoak izateko ahaleginean. Astero tertulian jardutea da programaren muina, urritik ekainera, eta 35 lagunetik gora aritzen dira dakitena praktikan jarri eta ez dakitena ikasteko helburuarekin.

## Bidelari eta bidelagunak

Bidelagunak eta bidelariak elkartzen dira talde txikietan euskaraz hitz egiteko. Bidelagun bakoitzak hiruzpalau bidelari osatutako taldea dauka, eta astean behin biltzen dira ordubetez euskara praktikatzeko. Euskara ikasi edo hobetu nahi dutenak dira bidelariak, eta zeregin horretan laguntzeko kideak dira bidelagunak.



## JESUS MARI MAKAZAGA


Bidelaguna



"Jende berria ezagutzeko aukera eman dit niri egitasmoak. Oso gustura egoten gara. Euskaraz hitz egiteko aukera ematen du egitasmoak, lasaitasunez. Ni ez naiz ibiltzen zuzentzen. Akatsak zuzentzen ditugu, baina poliki-poliki, denboraren poderioz joaten gara zuzenketak egiten, baina momentuan garrantzitsuena euskaraz hitz egitea da".

## ITZIAR ETXABE

Bidelaguna



"Uste dut BARRENEAN bidez izan nuela egitasmoaren berri, eta izena eman nuen. Pare bat urtez ibili nintzen, baina gero taldea desegin zen eta pena hartu nuen. Oso pozik joaten ginen denok eta harreman oso polita egin genuen. Pare bat urte eman nituen Tertuliak programan, eta ordutik saiatzen naiz euskaraz gehiago egiten.



## ARANTZA APRAIZ

Bidelaguna



"Oso gustura nabil Tertuliak programan, eta nik ematen diodana baino gehiago ematen dit niri egitasmoak. Euskara aldetik baino gehiago, modu pertsonalean egiten dit niri ekarpena. Nire taldeko jendea oso ondo prestatutako jendea da, eta gauza pila bat ikasten dut beraiekin. Beraien ikasketa edo lanbideetako kontuak azaltzen dituzte eta oso gauza interesgarriak kontatzen dituzte".

## DAYSY RODRIGUEZ

Bidelaria



"Eibarren hasi nintzen mintzapraktikan, eta Elgoibarrera iritsi ginenean jarraitzea erabaki nuen. Euskaltegira joateaz gain, euskara praktikatzeko aukera izatea oso ona da. Hau, gainera, ez da euskaltea bezain formala, eta beste gai batzuei buruz hitz egiteko aukera ematen du. Ni ez naiz lotsatia, eta, nahiz eta gaizki egin, euskaraz egiten saiatzen naiz".

**LUIS ZALDUA**

Bidelaria



"Lagun berriak egiteko aukera oso ona da. Askotan ezkondu ondoren kuadrilla giroa galdu egiten da, eta honi esker, nik behintzat, beste kuadrilla bat egin dut. Nire helburua da euskaraz pentsatzea. Guk gaztelania oso sartuta daukagu, eta erderaz pentsatzen baduzu, bi lan dituzu. Nik lortu dut euskaraz pentsatzea; baratzean orain letxugak euskaraz zenbatzen ditut eta oso pozik nago".

**JUAN CARLOS MARCOS**

Bidelaguna



"Ez dakit zenbat urtez ari naizen Tertuliak programan parte hartzen, baina pila bat dira! Oso gustura nago. Ostegunetan biltzen gara ordu eta erdiz, eta gero pintxopotera joaten gara elkarrekin. Sekulako harremana daukagu taldean, oso talde jatorra daukat eta hain egoten gara gustura, ez garela konturatu ere egiten denbora pasatu dela. Denok nahi izaten dugu hitz egin; txanda hartu ezinda ibiltzen gara batzuetan".

**MANU ZUBIAURRE**

Bidelaria



"Ni ez naiz asko irteten kalera, eta Tertuliak egitasmoari esker ostegunero irteten naiz. Oso gustura egoten gara, euskaraz hitz egiten. Gure etxean denek dakite euskaraz, baina emazteak eta biok gaztelaniaz egiteko ohitura daukagu, eta hori aldatzea ia ezinezkoa iruditzen zait. Ni jubilatu ondoren hasi nintzen euskara ikasten, baina lagunartean ez daukat euskaraz egiteko aukera askorik, eta Tertuliaki programari esker egiten dut apur bat gehiago, baina hala ere, astean ordu eta erdi gutxi dela iruditzen zait.





## Kartela aurkeztuta, hasi da Mugertza kroserako atzera kontaketa

Juan Mugertza Nazioarteko Krosaren 79. edizioko kartel ofiziala aurkeztu du Mintxeta Atletismo Taldeak. Azaldu dutenez, iaz oihartzun zabala eduki zuen Lilian Rengeruk atleta kenyarra oinutsik ageri zen kartelak, eta, aurtengo protagonista Miguel Angel Barzola da, hainbat alditan parte hartu duen atleta argentinarra. Lokatzez zikinduta ageri da atzetik ateratako argazkian, potzu bat zapaltzen duen unean. "Krosaren muina bete-betean harrapatu eta islatzen duen irudia da". Krosaren sekretuak bistaratzen horren trebea den Felix Sanchez Arrazola argazkilariak ateratako argazkia dela argitu dute. Kartela aurkeztuta, erakundeei eta babesleei eskerrak eman dizkiete Mintxetakoek, haiengandik jasotzen duten laguntza handiagatik. Hilabete bat baino gutxiago falta da 2023ko Mugertza Krosa jokatzeko, urtarrilaren 8an izango baita.



### Gorka de la Horra ia sei minutuan ondu du maratoian zuen marka pertsonala




Valentziako maratoia ez da nolanahiko maratoia, duen ibilbide lauagatik eta klimagatik markak ontzeko baldintza ezin hobekak baititu. Maratoilariek badakite, eta mundu osotik joandako antxixikariak erakartzen ditu. Gorka de la Horra ere marka ontzeko asmoarekin joan zen Valentziara. "Nire helburua asfalto gaineko maratoietan nuen denbora hobetzea zen. Valentziakoaren aurretik bi maratoi bukatu ditut, eta 2:40:08koa zen nire markarik onena. Denbora hori ontzeko gai ikusten nintzen, arriskatzera irten nintzen eta ondo irten zitzaidan apostua", azaldu du. Bi ordu, 34 minutu eta 13 segundoan osatu zuen Valentziako maratoia. Lehen erdia 1:16:59ko denboran egin zuen, eta 1:17:12ko denboran bigarrena.

### Igeriketa erronka solidarioa, bihar

Ateak irekitzeko jardunaldia egingo dute bihar, hilak 17, Olaizagako igerilekuetan. Hala, igerilekuetarako sarrera doakoa izango da, eta patronatuko bazkidegata egiteko aukera izango dute bisitariek. Gaztetxoentzako puzgarriak eta uretako kanoak ipiniko dituzte igerileku handian, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara

bitartean, Igeriketa erronka solidarioa egingo dute, herriko Nuala elkartarearen alde dirua batzeko. Igerilekura joaten diren guztien artean igerian zenbat metro egiten dituzten zenbatuko dute antolatzaileek, Udal Kirol Patronatuak eta Elgoibarko Igeriketa Taldeak. Igerilekuko sarreran kutxa bat ipiniko dute Nualari diru-ekarpena egiteko.



## Agur Elgoibarrek eman duen saskibaloijokalarionenari

Saskibaloijokalariprofesionalizandako Ion Imanol Rementería Totorika elgoibartarra hil zen domekan, Madrilen, 58 urterekin. Munduko saskibaloijokalarionen artean dagoen ACB Ligan jokatu duen elgoibartarbakarra izan da.

Umetan saskibaloiaz gainera, futboleant, eskubaloiant eta esku pilotan ere aritu zela azaldu zuen Rementeriak berak *endesabasketlover.com* webguneak ACB Ligako hastapenetan jokatu zuten jokalariei 2014an eginiko elkarrizketa sorta batean. Eibarko Unibertsitate Laboralean ikasle zela, bere garaiera zela-eta saskibaloiproba batzuetan parte hartzera gonbidatu zuten. Real Madril taldean mitodena Clifford Luyk-ek begiz jo zuen Rementeria gaztea proba hartan, eta Elgoibarrera etorri zen Luyk, 14 urterekin 1,96ko garaiera zuen jokalarigazteari aurrez aurreko beste proba bat egitera. "Zalaparta handia sortu zuen bisita hark herrian. Jokatzeko ikusi ninduen eta Real Madril taldeak fitxatu ninduen", azaldu zuen elgoibartarrak. Real Madril taldeko jokalaria izan zen 14 urte zituenetik 19 urtera arte, eta lehen taldearekin jokatzera iritsi zen arren, ez zuen lekua egiterik lortu. Orduan, Estudiantes talde historikoak fitxatu zuen 1983an. Hala, ACB Liga, Espainiako saskibaloiliga profesionala, sortu zuten denboraldian egin zuen debuta profesionalekin, Estudiantes Caja Postal taldean, 1983-84 denboraldian. 1989ra bitartean jokatu zuen Madrilgo taldean eta jokalarigandiak izan zituen taldekide eta aurkari. David Russell, Juan Antonio Orenga, Vicente Gil, Ricky Winslow edo John Pinone izan zituen taldekide lehen urteetan. Rementeriak 2,02 metroko garaiera zuen eta pibote

postuan jokatzeko zuten. Estudiantes taldeak oharra zabaldu zuen Rementeriareneri heriotzaren berri izan ostean, eta zaleek "izugarri maite" zuten jokalaria zela nabarmendu zuten, "jokalariborrokalaria" zelako. Estudiantes taldearen hazkunderako urte garrantzitsuak izan zirenetan bere alea jarri zuela ere azpimarratu dute, "80ko hamarkada mitikoa izan baitzen Magariñosen (Kiroldegiaren izena), eta gure kluba asko hazi zen", adierazi dute Madrilgo kirol-taldek. "Gure egiten dugu une gogor hauetan familiakoek eta ingurukoek sentitzen duten mina", adierazi zuten. Era berean, Real Madril kirol-taldek ere zabaldu du dolu-mezua bere sare sozialetan. Rementeriak 1989an laga zion Estudiantes taldean jokatzeari, baina beste lau urtez jarraitu zuen goimailako saskibaloiant, Madrilgo taldeetan: Collado Villalba, Atletico de Madrid Villalba eta Collado Villalba taldeetan. 1990-91 denboraldikoan, Atletico Madril Villalba taldean, Atletico Madril futbol taldeko jabe Jesus Gilek saskibaloiant hasi zuen proiektuko partaide izan zen. NBAtik etorritako Walter Berry eta Shelton Jones jokalarigandiak izan zituen taldekide eta Clifford Luyk entrenatzaile. Rementeriak Lehen Mailako Europolis Las Rozas taldean eman zion amaiera kirol ibilbideari, 1992-193 denboraldian. Belauneko lesioak tarteko, 29 urterekin hartu zuen erretiroa kirol bizitzatik. Guztira 194 partida jokatu zituen mailarik gorenean, eta batez beste, 3,4 puntu eta 2,1 errebote lortu zituen 14 minututan. Saskibaloia laga ostean Madrilgo bizitzeko jarraitu zuen, informatikari eta itzulpenzari lotutako lanbideetan.

## Bizitzak kolpatutako kirolarien bizipenak, Urteko Kirol Sariak banatzeko ekitaldiko mahai-inguruan

**A**benduaren 20an, martitzenean, banatuko dituzte Kirol Federatuaren Urteko Sariak, musika eskolako auditoriumean (19:30). Guztira 21 sari banatuko dituzte aurten: 18 kirol elkarteek banatuko dituzte, eta beste hiru sari, Udal Kirol Patronatuak. Ohitura duten moduan, kirolaren inguruko mahai-ingurua ere antolatu



dute sari banaketa ekitaldia hasteko. Aurten Mikel Lizarralde, Ibon Oregi eta Uxoia Irigoien kirolariak gonbidatu dituzte. "Bizitzan, era batera edo bestera, kolperen bat jaso duten kirolariak dira hirurak eta kirolaz baliatu dira aurrera jarraitzeko", azaldu dute Udal Kirol Patronatutik. Sarrera doan da eta edozein joan ahal da ekitaldira. Mikel Lizarralde eibartarrari esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten 38 urte zituela, eta harrezgero kirolari lotutako hainbat proiektu jarri ditu abian: *Gipuzkoa herriz herri*, *Nire erreferenteak* eta *Zazpi*. Ibon Oregik, berri, ezkerreko hanka galdu zuen orain dela bi urte izandako istripu batean, Zumaia eta Getaria artean saltaka ari zela. Geroztik miresmena sortu du ezbeharrean erakutsi duen indarragatik. Hirugarren gonbidatua, Uxoia Irigoien getariarra izango da. Mendi-korrikalaria izan zen lehenik, arraunlaria gero, eta orain berri mendira itzuli da. Bidai horretan, baina, janariarekin lotutako nahasmenduek zulora eraman zuten.

**UME BATEN AMETSA IZATETIK PROFESIONAL MAILARA AILEGATZERA DAGOEN BIDEA**

Abenduak 16  
19:30tan  
Elgoibarko Musika eskolako auditoriumean

ELT EUSKADI

2023ko Urteko Kirolariak

2023ko Emakume Kirolariak

2023ko Kirolariak

2023ko Emakume Kirolariak

2023ko Kirolariak

2023ko Emakume Kirolariak

2023ko Kirolariak

2023ko Emakume Kirolariak

2023ko Kirolariak

2023ko Emakume Kirolariak

### Txirindulari profesional izateko bidez berba egiteko mahai-ingurua antolatu du Elgoibarko Lagun Taldeak

Elgoibarko Lagun Taldea txirindulari eskolak zazpi txirindulari gonbidatu ditu, gizon eta emakume, ume baten ametsa izatetik profesional mailara ailegatzera bitartean dagoen bidez berba egitera. Arnasa luzeko kirola da txirindularitza, helburuak egun batetik bestera betetzea erraza ez den kirola, diziplina eta jarraikortasuna eskatzen dituena. Bide hori hasi berri duten txirindulariek eta ametsa egi bihurtu duten txirindulari profesioneek hartuko dute parte gaur arratsaldean musika eskolako auditoriumean egingo duten mahai-inguruan. Honakoak izango dira hizlariak: Eneritz Vadillo (Seguros Bilbao-Miribilla), Naia Amondarain (Sopela women's team), Peio Goikoetxea (Euskaltel-Euskadi), Xabier Isasa (Euskaltel-Euskadi), Imanol Alvarez (Eiser Hirumet), Nicolas Alustiza (Laboral Kutxa) eta Danel Casais (Laboral Kutxa). Alex Higuera egingo ditu moderatzaile lanak. 19:30ean hasiko da ekitaldia.



**LANA**

**Eskaerak**

Adinekoak zaindu edo etxeko garbiketa lanak egingo nituzke.

**632 874 852**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Urteetako esperientzia daukat.

**697 665 452**

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxez-etxeko laguntzaile titulua daukat, eta esperientzia ere bai. **685 724 861**

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.

Esperientzia daukat.

**652 020 464**

Adinekoak zainduko nituzke, orduka edo etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

**613 819 233**

Goizetan umeak eskolara eramateko prest nago, eta arratsaldeetan zaintzeko prest ere bai. Garbiketa lanak egiteko ere prest nago. Esperientzia daukat eta euskalduna naiz.

**615 759 069**

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago. Garbiketa lanak ere egiten ditut. **641 739 472**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

**642 577 823**

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan.

**642 578 943**

Adinekoak zaintzeko prest nago. Tituluak eta esperientzia ditut. Etxeko langile moduan, orduka edo gauetan lan egingo nuke.

**697 730 662**

Adinekoak zaintzeko prest nago, gauzez edo asteburuetan. Etxeko langile moduan ere bai.

**652 020 464**

Adinekoak zaintzeko, garbiketa lanak egiteko edo sukaldeko lanetan aritzeko prest nago.

Esperientzia daukat.

**647 533 201**


**Eskaintza**


Fadek ile-apaindegirako langilea behar da. **624 646 336**


**ETXEBIZITZA**

Etxe polita alokatzen dut, San Frantzisko kalean. 4. pisua, igogailurik gabe. Gela bakarrekoa da, egongelarekin.

**660 042 159** (arratsaldez deitu)

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoaldea Eskola Administrazioaleko Lanarile-Kontrolak</p>  <p><b>ROSA Mª PINTADO</b></p> <p><i>Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p><b>660 969 679</b> <b>rosapf@telefonica.net</b></p>	<p><b>Lokal komertzial baten jabea naiz, eta nire lokaleko sabaia bi komunitetako barne-patio baten lurra da. Nire lokalean itokinak ditut, patio horretatik datozen itokinak dira, eta behin eta berriz esan didan arren, ez komunitate batek eta ezta besteak ere ez didate irtenbiderik ematen. Jakin nahi nuke nori dagokion lur hori konpontzea, nik itokinik ez edukitzeko.</b></p> <p>Lehenik eta behin zure lokalaren egoera aztertu beharko genuke, dirudienez ez delako lokal bakarra, baizik eta, elkartuta dauden bi. Zuk diozun moduan baldin bada, lokalaren gainean bi patio daude, bakoitza komunitate bati dagokiona, normalena juridikoki izan beharrik ez duen arren, bakoitza eraikin desberdin batekoa izatea da.</p> <p><b>ONDORIOA: Zure arazoari irtenbidea ematea itokin horien jatorria non dagoen argi ikusten ez bada, aditu bati deitzea izango da egokiena. Itokin horien jatorria zehazten duenean, patio hori dagokion komunitate zein den ere zehaztuko du, eta zure eskaera komunitate horri bideratu ahal izango diozu. Jabetza pribatu bateko elemento komun bati dagokion arazoa denez, dagokion komunitateak hartu beharko ditu bere gain konponketa egoki bati dagozkion gastuak.</b></p> <p><b>GOAR</b> AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,  
*barren@elgoibarkoizarra.eus* e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Ange**,  
 abenduaren  
 11n 4 urte egin  
 zenituelako.  
 Etxeko denon  
 partez, muxu  
 handi bat.




Abenduaren  
 21ean 6 urte  
 beteko dituzu!  
 Eguna ohiko  
 alaitasunarekin  
 pasatzea desio  
 dugu. Zorionak,  
**Unai!**



Zorionak, **Nahia**,  
 asteartean  
 10 urte bete  
 zenituelako.  
 Muxu handi  
 bat etxekoen,  
 eta bereziki,  
 Hodeiren partez.



Zorionak, **Marco** eta **Paul**, 6 eta 2  
 urte bete dituzuelako. Muxu handi  
 bana lagunen eta etxeko guztion  
 partez. Asko maite zaituztegu!



Zorionak, **Izei** eta **Uhaitz**,  
 martitzenean 4 urte bete  
 zenituztelako. Muxu handi bana,  
 izebaren partez.



Zorionak, **June!**  
 Primeran ospatu  
 dugu zure 5.  
 urtebetetzea!  
 Segi orain arte  
 bezain alai!  
 Muxu potolo bat,  
 etxekoen partez!

Erretratu bakarrekogurra: 4,50€.  
 Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.  
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO  
 BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK  
 Erretratu bakarrekogurra: 3,50€.  
 Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.  
 Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar

**Gabonetan egin etxeko guztiei tokia!  
Ikusi gure mahai eta aulki tolesgarriak.**

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)



**4 aulki  
15zm-tan**

**BARREN** astekaria **ADI!** Telefono zenbaki berria dugu:

 **688 655 658**

Whatsapp mezuak bidaltzeko **zenbaki berria** erabili behar duzue aurrerantzean!



**16 BARIKUA**

**18:30** Zine foruma: 'Ni uno menos'. Haizeak antolatuta, Lilan. Mokadutxoia ere emango dute.

**18:30** Antzerkia: 'Rebelión en la granja'. Herriko Antzokian. Sarrerak: [herrikoantzokia.eus](http://herrikoantzokia.eus)

**19:30** Txirringitaritzari buruzko mahai-ingurua. Musika eskolako auditoriumean. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatuta.

**17 ZAPATUA**

**10:00-13:00** Ate irekiak, Kiroldegian. Uretako puzgarriak eta haurrentzako kanoak.

**16:00-19:30** Igeriketa erronka solidarioa. Nuala elkartearen alde.

**16:30** Xake irekia. Zubi Ondo xake taldeak antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

**18 DOMEKA**

**9:30** Mendi irteera: Urnobotzara. Mintxetan elkartuko dira. Morkaikok antolatuta, Ikastola eta Herri Eskolarekin.

**10:00** Dultzaineroen kalejira.

**11:00-12:30** Jaiotza lehiaketa. Aita Agirre kulturgunean.

**11:30** Emakumezkoen xake txapelketa. Zubi Ondo xake taldeak antolatuta, Kultur Etxeko erakusketa gelan.

**12:30** Udal Musika Bandaren Gabonetako kontzertua. Herriko Antzokian.

**19 ASTELEHENA**

**18:00** Hausnarketa saioa: 'Emakume heroien bidaia'. Loredi Salegik dinamizatuko du. Lilan.

**20 MARTITZENA**

**17:00** Kafe tertulia: Antzinako Elgoibarki buruzko saioa, Pello Arrieta historialariarekin. Jubilatuen Biltokian.

**19:00** Mendaroko Ameikutz musika eskolako jaialdia. Musika Eskolan.

**19:30** Kirol Federatuaren Sariak. Musika Eskolako Auditoriumean.

**21 EGUAZTENA**

**17:00** Parrokiako jaiotza. Urtarrilaren 8ra arte egongo da ikusgai.

**22 EGUENA**

**18:30** Hitzaldia: 'Aulki hutsak'. Gabonetan dolua nola bizi azaltzeko hitzaldia. Kultur Etxean. Izena emateko: 627 117 819

**20:00** Elgoibarko Musika Eskolako Gabonetako kontzertua. San Bartolome parrokian.

**Zinea****'As bestas'**

17 zapatua: 19:00/22:15

18 domeka: 19:00

19 astelehena: 21:00

**'La gran aventura suiza'**

18 domeka: 16:30

**Botika ordutegiak:** 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

**ABENDUA**

16 BARIKUA  
17 ZAPATUA  
18 DOMEKA  
19 ASTELEHENA  
20 MARTITZENA  
21 EGUAZTENA  
22 EGUENA  
23 BARIKUA

**Egunez**

Garitaonandia  
Arriola  
Arriola  
■ Fernandez  
Yudego  
■ Oruesagasti  
Barrenetxea  
■ Ibañez

**Iluntzean**

Garitaonandia  
Arriola  
Arriola  
Yudego  
Yudego  
Barrenetxea  
Barrenetxea  
Garitaonandia

■ Fernandez:  
Herriko Enparantza,4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

■ Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

■ Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00  
Esther Mendinueta Berastegui - Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) - 943 820 106





## *Ma Teresa Aramendi Etxaniz*

2022ko abenduaren 11n hil zen, 89 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***

Etxekoak




## *Ion Imanol Rementeria Totorika*

2022ko abenduaren 11n hil zen, 58 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Madrilera eraman zintuen bizitzak nerabe zinela,  
baina zure parte handi bat hemen geratu zen gurekin:  
etxean,  
herrian,  
Kalamuako maldetan.***

***Beti eramango zaitugu gure bihotzetan, Ion.***

Etxekoak



## *Ion Imanol Rementeria Totorika*

1964 - 2022

***15 urterekin joan zinen Elgoibartik Madrilera mundu berri baten bila,  
baina ez duzu sekula ahaztu etxerako bidea.***

***Berriz ikusi arte, Hollis.***

Kuadrillakoak



## DIRULAGUNTZAK

# “Dirulaguntzak aurrezten den energia kopuruaren arabera emango dira”

Etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko eta etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzeko laguntzak bideratuko ditu birgaitze bulegoak.

## Nolako dirulaguntzak dira?

Europar Batasunak emandako NEXT Generation dirulaguntzak dira eta, kasu honetan, etxebizitzetan energia-eraginkortasuna hobetzea helburu duten jarduketak edo obrak finantzatzeko eta etxebizitza-erakinak birgaitzeko jarduketak eta proiektuak finantzatzeko balio izango dute. Zentzu horretan, Debegesatik, Debabarreneko Birgaitzeko Hirigintza Elkarteak garenaz eta Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena dugunez, laguntza hauen inguruko informazioa eman eta laguntzak bideratuko ditugu.

## Nolako baldintzak dituzte dirulaguntza hauek?

Itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira eta energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak egiteko erabili behar dira beti. Gainera, obrei esker zenbat aurrezten den justifikatu behar da Energia Eraginkortasunaren Ziurtagiriaren bitartez. Izan ere, dirulaguntzak aurrezten den energia kontsumo kopuruaren arabera emango dira.

## Zer dira, zehazki, energia-eraginkortasuna hobetzeko jarduketak?

Adibidez, eraikinaren ingurutzailan egiten diren hobekuntzak. Hau da, fatxadetan eta estalkietan egiten diren lanak. Kasu horretan, obrak ez dira fatxada margotzera soilik mugatzen, lehen egiten zen bezala. Isolamendu-lanak egiten dira, eraikinari beroki moduko bat ipiniz eta, horrela, eraginkorragoa da energetikoki, energia gutxiago galtzen duelako. Etxebizitzetara dagokienez, bestetik, leihoen aldaketa izan daiteke jarduketak bat, adibidez.



Dagoeneko badago dirulaguntza hauek eskatzeko aukera.

## Zenbateko dirulaguntzak jaso ditzakete eskakizuna egiten dutenek?

Dirulaguntzaren zenbatekoa gehieneko ehunekoaren eta gehieneko zenbatekoaren arteko txikitasunaren arabera kalkulatu da. Gainera, egoera ekonomiko ahulean dauden pertsonen laguntza osagarriak jaso ahal izango dituzte.

## Noiz eta nola eskatu ahal izango dira dirulaguntza hauek?

Dagoeneko eskatu daitezke. Etxebizitza-komunitate batek edo partikular batek informazio behar badu, Debegesara deitu dezake (943 82 01 10) eta Igorreatatik galdetu zita hartzeko. Gainera, *debegesa.eus* webgunearen bitartez zita hartzeko aukera eskainiko dugu laster. Horrez gain, etxebizitza-komunitateentzat eta herritarrentzat fitxa batzuk sortu ditugu dirulaguntzen inguruko informazio zehatz eta argiarekin. Hauek ere Debegesako webgunean eskegita aurkitu ahalko dira laister.

# BARREneko oharra

harpidedunentzako

Buzoiko **B pegatina** falta bazaizu edo hondatuta baduzu, **BARRE**nen bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiaik pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



## EXPRESS ESKAINTZAK!

### BOSCH WRT85V91ES ARROPA-LEHORGAILUA



A++

599 €

- 8 kg-ko karga
- Bero-ponpa
- Vario Soft danborra
- LED pantaila
- Zimurren aurkako babesa
- Lehortze-sistema delikatu

# MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

Ia 2.000 erregalu baino gehiago...

Aurten bai! Aurreko urteetan **TONBOLAK** izan duen estimazioak bueltzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola jarriko dugu **Kalegoen plazan**. Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



Leporako zapiak



Laminak



Estetika bonoak



Margoak



Poltsak



Goxokiak



Egutegiak, agendak eta komiki liburuak



Bozgorailuak



Zaku nordikoak



Jostailuzko kotxeak



643 499 169

943 741 626

[elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)





## Urrutira heltzeko modu bakarra dago. *Hurbil egotea.*

Gero eta gehiago bizi gara eta nola zahartu erabaki nahi dugu. Gipuzkoako Foru Aldundia zainketen etorkizuna lantzen ari da Etorkizuna Eraikiz ekimenaren bidez.

Gero eta zaintza pertsonalizatuagoak, komunitateari lotuagoak daudenak eta berritzaileak. Datozen 8 urtetan 39 jarduketa garatuko dira zaintzen duen eta nola zaindua izan nahi duen erabakitzen duen lurraldea izateko. Gure etorkizunaren alde lantzen ari diren gizarte-politikak, orain.

Etorkizuna Orain.

[etorkizunacraikiz.eus](http://etorkizunacraikiz.eus)

Gipuzkoako  
Foru Aldundia



ETORKIZUNA  
ORAIN